Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Prentsa-oharra

UR PARTZUERGOAK "LA GALDAMESA" BIDE BERDEAREN ZATI BAT IREKIKO DU BERRIZ SANTELICES (MUSKIZ) ETA COTORRIO (ABANTO) ARTEAN.

Zati nagusiak urte bukaerara arte izango ditu eraginak.

BILBO, 2016ko maiatzaren 12a.- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Enkarterriko mendebaldean dauden udalerrietan (Sopuerta eta Galdames, eta, aurrerago, Artzentales eta Turtzioz) hornidura-bermea indartzeko proiektuaren lehenengo fasea abiarazi zuen duela urtebete. Lanak direla-eta, "La Galdamesa" bide berdearen zenbait zati itxi beharra egon da. Santelices (Muskiz) eta La Aceñako (Galdames) industrialdeen arteko bide-zati nagusia abendu bukaerara arte itxita egongo den arren, dagoeneko bi zati ireki dira: Santelices eta Cotorrio (Abanto) artekoa bata, eta Sopuertako udal mugartean bestea, Castaño auzoa eta Sopuerta Abentura artekoa, hain zuzen ere.

Gainera, Ur Partzuergoak aurreikusitako azpiegitura berriak beste elementu osagarri batzuk ere baditu; hala nola, 800 milimetroko diametroko eta zazpi kilometroko lurpeko hodia Las Carreras (Abanto-Zierbena) eta La Aceñako (Galdames) biltegien artean, bigarren mailako bi hornidura-adarrekin bat egingo duena Jarralta (Sopuerta) eta La Escarpadako (Galdames) biltegietaraino.

Hoditeriaren tarte nagusia lehengo *"La Galdamesa"* burdinbidearen lubakitik joango da ia osorik, ingurumen eragina txikiagoa izan dadin. Aztertutako hiru irtenbideen artean, Ur Partzuergoak hori aukeratu du; izan ere, alternatiba horrek **minimizatu egiten ditu** Barbadun ibaiari lotutako espazio naturalen eta lehentasunezko habitaten gaineko **eraginak**, inguruaren balio historikoa ahaztu gabe; izan ere, bertan, Bizkaiko lehengo meatzaritza-jardueraren hondarrak daude oraindik.

Hornidura azpiegitura berri honen lanek *"Burdinmendi / Itsaslur"* izeneko bide berdean hainbat murriztapen egin behar izatea ekarri dute azken hilabeteotan; Sopuerta, Galdames, Muskiz eta Abanto-Zierbena udalerrietako hainbat tokitan, aldi baterako eraginak izan dira. Urte bukaerarako bidea **guztiz zaharberrituta eta zabalik** egotea aurreikusi da; hala ere, abuztuaren azken aldera, beste zati bat irekiko da Galdamesen, El Cerco eta La Aceña auzoen artean.

Ur Partzuergoak informazio-kartelak jarri ditu ibilbideko hainbat puntutan, eragindako udalerri guztietan, eta informazioa gaurkotzen joango da. Erakundearen webgunearen (www.consorciodeaguas.com) barruan, microsite bat sortu da, erabiltzaileek eta auzokoek lanen unean-uneko egoeraren eta epe ertainera aurreikusitako eraginen berri izan dezaten. Bezeroaren arretarako telefono bat (94 487 31 87) ere badago, edozeinen eskura, eta udaletxeetan ere proiektuaren inguruko informazioa jaso ahal izango dute.

Gaur egun, Enkarterriko udalerriak arduratzen dira eskualdeko hornikuntzaz; udalerri bakoitzak, izan ere, zenbait iturburu eta edateko uren tratamendutegi txikiak kudeatzen ditu. Egoera horrek oztopo ugari sortzen ditu kalitatezko eta bermedun hornikuntza zerbitzua emateari dagokionez; eta bi alde horiek lehentasunezkoak dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa osatzen duten udalerri guztietan.

Ur Partzuergoak proiektatu dituen jarduerek helburu bikoitza erdiestea ahalbidetuko dute. Alde batetik, udalerrietan kalitatezko hornikuntza ematea bermatuko dute, batez ere Sopuertan, Galdamesen, Artzentalesen, Turtziozen eta Zallan. Eta, bestetik, ohiz kanpoko egoeretan hornikuntza bermatuko dute, funtzionamendua kontrako noranzkoan jarriz, hau da, Enkarterritik Ezkerralderantz.

BIDE BERDEAREN ZENBAIT TARTETAN AURREIKUSITAKO ERAGINEN LABURPENA:

Cotorrio (Abanto-Zierbena) – Santelices (Muskiz) tartea
Zabalik

El Arenao (Sopuerta) – Castaños (Sopuerta) tartea
Castaño auzoa eta Sopuerta Abentura arteko tartea, zabalik.

Santelices (Muskiz) – El Cerco (Galdames) tartea
Itxita, 2017ko ekainaren 30era arte.

El Cerco (Galdames) – La Aceña industrialdea (Galdames) tartea
Itxita, 2017ko ekainaren 30era arte.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Nota de prensa

EL CONSORCIO DE AGUAS REABRE UN TRAMO DE LA VÍA VERDE DE *"LA GALDAMESA"*, ENTRE SANTELICES (MUSKIZ) Y COTORRIO (ABANTO)

Las afecciones en el tramo principal se mantendrán hasta final de año

BILBAO, 12 de mayo de 2016.- El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia inició hace algo más de un año la primera fase del proyecto para reforzar la garantía de suministro en los municipios más occidentales de la comarca de Encartaciones, esto es, en Sopuerta y Galdames, y más adelante, en Artzentales y Trucíos. Las obras han obligado al cierre de varios tramos de la vía verde de "La Galdamesa". Aunque el tramo principal entre los polígonos industriales de Santelices (Muskiz) y La Aceña (Galdames) continuará cerrado hasta finales de diciembre, se han abierto ya dos tramos, entre Santelices y Cotorrio (Abanto), y en el término municipal de Sopuerta, entre El Castaño y Sopuerta Abentura.

La infraestructura proyectada por el Consorcio de Aguas incluye además de otros elementos auxiliares, un tubo subterráneo de siete kilómetros y 800 mimímetros de diámetro, entre el depósito de Las Carreras (Abanto - Zierbena) y La Aceña (Galdames), que conectará con dos ramales de abastecimiento secundarios, hasta los depósitos de Jarralta (Sopuerta) y La Escarpada (Galdames).

El tramo principal de la tubería discurrirá casi integramente por la trinchera del antiguo ferrocarril minero de *"La Galdamesa",* por su menor impacto ambiental. Y es que, entre las tres alternativas estudiadas, el Consorcio de Aguas se decantó por esta que **minimiza las afecciones ambientales** a los espacios naturales y hábitats prioritarios asociados al río Barbadún, sin olvidar tampoco, el valor histórico de la zona, donde existen numerosos restos de la antigua actividad minera de Bizkaia.

Las obras de esta nueva infraestructura de abastecimiento han impuesto en los últimos meses algunas restricciones en el uso de la vía verde conocida como de los *"Montes de Hierro / Itsarlur",* con afecciones temporales en distintos puntos de los términos municipales de Sopuerta, Galdames, Muskiz y Abanto - Zierbena. La previsión es que la vía quede **completamente abierta al paso y rehabilitada** para finales de este año, pero a finales de agosto se abrirá otro tramo en Galdames, entre los barrios de El Cerco y La Aceña.

El Consorcio de Aguas ha instalado en varios puntos del recorrido, en todos los municipios afectados, carteles informativos que se irán actualizando y se ha habilitado un microsite dentro de la web de la entidad (www.consorciodeaguas.com) para que usuarios y vecinos puedan conocer puntualmente el estado de las obras y las afecciones previstas a medio plazo. Existe además un teléfono de atención al cliente (94 487 31 87) a disposición de cualquier persona, que pueden recabar información del proyecto también en sus ayuntamientos.

En la actualidad, el abastecimiento a la comarca de Las Encartaciones está a cargo de los propios municipios, cada uno de los cuales gestionan una serie de manantiales y potabilizadoras pequeñas. Esta situación implica importantes inconvenientes en lo referente a la dotación de un servicio de abastecimiento de calidad y con garantía de suministro, que son aspectos prioritarios para el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia en todos los municipios consorciados.

Las actuaciones proyectadas por el Consorcio de Aguas permitirán alcanzar un doble objetivo. Por un lado, garantizar un suministro de calidad a los municipios, principalmente Sopuerta, Galdames, Artzentales, Turtzioz y Zalla, y por otro lado, disponer de una garantía de suministro en situaciones excepcionales, mediante el funcionamiento de la conducción en sentido inverso, desde Las Encartaciones hacia Margen Izquierda.

RESUMEN DE AFECCIONES PREVISTAS EN LA VÍA VERDE

Tramo Cotorrio (Abanto - Zierbena) – Santelices (Muskiz)
Abierto

Tramo El Arenao (Sopuerta) – Castaños (Sopuerta)
Apertura parcial entre el barrio de El Castaño y Sopuerta Abentura.

Tramo Santelices (Muskiz) – El Cerco (Galdames)
Cerrado hasta el 30 de junio de 2017.

Tramo El Cerco (Galdames) – P.I. La Aceña (Galdames)
Cerrado hasta el 30 de junio de 2017.